

UNI BERTSITATEA



erdiko orrialdeetan

Larunbateko manifestazioan izango dela berretsi du EHK

Bilbon izatekotan, manifestazioaren mezua osorik onartu behar duela diote EAJk, EAK eta EB-IUk

■ EUSKAL HERRITARROK taldeak berretsi egin zuen atzo larunbaterako Bilbon EAJK, EAK eta EB-IUK antolatu duten manifestazioan izango dela, irakurketa eta talde propioarekin. EHren arabera, bat egiten du deialdiaren eduki nagusiekin, eta haietan indarrak biltzeko ahaleginetan joango da.

Bilboko manifestazioari atxikimendua adierazi diote Eusko Jaurlaritzak, Elkarri-k eta Nafarroako IUk

Gainera, antolatzaileei galdegina die formula hori zergatik ez duten onartzen, Ibarretxek deitutako bilkuretan elkarrekin egon baziren. EHren berrespenaren aurretik, antolatzaileek esan zioten manifestazioaren mezua osorik onartuko beharko duela, larunbatean Bilbon izatekotan. • 6-7

politika

■ Saez eta Gomez gazte lapurtarrek torturak jasan zituztela salatu dute • 10

gizartea

■ Aurtengo gripeak larritasun berezirik ez duela dio OMEk • 12

■ Rita M.: «Prostituta nintzela onar nezan, bortxatu eta jo egin ninduten» • 13

ekonomia

■ V. Biltzar Nazionalako hiru ponentziak aurkeztu ditu LABek • 19

mundua

Aljeria

Salbaziorako Armada Islamikoko kide guztiei amnistia eman die lehendakariak • 26

kirola

Saskibaloia

Tauk sei puntuko errenta murrizta lortu du Saporta Kopan • 29

Futbola

Rayo-Athletic eta Alaves-Real Union gaurko Kopako jardunaldian • 30-31

'Lasa-Zabala auzia' ◆



EFE

Rafael Veraren txanda

■ ESPAINIAKO Estatu idazkari ohia akusatuen aulkian izan zen atzo Lasa-Zabala auziko epaiketan, Gabonetako oporren ondoko lehen saioan. Aurreko guztiek bezala, Rafael Verak ukatu egin zituen bere aurkako salaketak, eta baita Gobernuaren aurka inoiz legez kanpo aritu izana ere. Beste akusatuen antzera, Verak uko egin zion Iñigo Iruin akusazioko abokatuaren galderei erantzuteari, eta ika-mika beroa izan zuten bien artean. Gaur jarraituko du deklaratzeko Seguritasunerako Estatu idazkari ohiak, eta haren ondoren Jorge Argote eseriko da akusatuen aulkian.

• 8-9



BOB EDMOND

Kamioilariak egun osoan itxita eduki zuten atzo autobidea Miarritzen

■ Iluntzean N-10 errepidea moztu zuten, Parisko bilera emaitzirik gabe amaitu eta gero • 21